

EUSKARRA

Aintzane MANGADO ETULAIN

***HAUR HIZKERAREN
EZAUGARRIAK ETA ERABILERA:
OROKORRETIK IRUÑERRIKO
ESKOLETARA***

GBL 2014

upna
Universidad
Pública de Navarra
Nafarroako
Unibertsitate Publikoa

Facultad de Ciencias Humanas y Sociales
Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea

Haur Hezkuntzako Irakasleen Gradua

Haur Hezkuntzako Irakasleen Gradua
Grado en Maestro en Educación Infantil

Gradu Bukaerako Lana
Trabajo Fin de Grado

**HAUR HIZKERAREN EZAUGARRIAK ETA
ERABILERA: OROKORRETIK IRUÑERIKO
ESKOLETARA**

Aintzane MANGADO ETULAIN

GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIEN FAKULTATEA
FACULTAD DE CIENCIAS HUMANAS Y SOCIALES

NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA
UNIVERSIDAD PÚBLICA DE NAVARRA

Ikaslea / Estudiante

Aintzane MANGADO ETULAIN

Izenburua / Título

Haur Hizkeraren ezaugarriak eta erabilera: Orokorretik Iruñerriko eskoletara

Gradu / Grado

Haur Hezkuntzako Irakasleen Gradua / Grado en Maestro en Educación Infantil

Ikastegia / Centro

Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea / Facultad de Ciencias Humanas y Sociales
Nafarroako Unibertsitate Publikoa / Universidad Pública de Navarra

Zuzendaria / Director-a

Ekaitz SANTAZILIA SALVADOR

Saila / Departamento

Filología y Didáctica de la Lengua/
Filologia eta Hizkuntzaren Didaktika

Ikasturte akademikoa / Curso académico

2013/2014

Seihilekoa / Semestre

Udaberrikoa / Primavera

El Real Decreto 1393/2007, de 29 de octubre, modificado por el Real Decreto 861/2010, establece en el Capítulo III, dedicado a las enseñanzas oficiales de Grado, que “estas enseñanzas concluirán con la elaboración y defensa de un Trabajo Fin de Grado [...] El Trabajo Fin de Grado tendrá entre 6 y 30 créditos, deberá realizarse en la fase final del plan de estudios y estar orientado a la evaluación de competencias asociadas al título”.

El Grado en Maestro en Educación Infantil por la Universidad Pública de Navarra tiene una extensión de 12 ECTS, según la memoria del título verificada por la ANECA. El título está regido por la *Orden ECI/3854/2007, de 27 de diciembre, por la que se establecen los requisitos para la verificación de los títulos universitarios oficiales que habiliten para el ejercicio de la profesión de Maestro en Educación Infantil*; con la aplicación, con carácter subsidiario, del reglamento de Trabajos Fin de Grado, aprobado por el Consejo de Gobierno de la Universidad el 12 de marzo de 2013.

Todos los planes de estudios de Maestro en Educación Infantil se estructuran, según la Orden ECI/3854/2007, en tres grandes módulos: uno, *de formación básica*, donde se desarrollan los contenidos socio-psico-pedagógicos; otro, *didáctico y disciplinar*, que recoge los contenidos de las disciplinas y su didáctica; y, por último, *Practicum*, donde se describen las competencias que tendrán que adquirir los estudiantes del Grado en las prácticas escolares. En este último módulo, se enmarca el Trabajo Fin de Grado, que debe reflejar la formación adquirida a lo largo de todas las enseñanzas. Finalmente, dado que la Orden ECI/3854/2007 no concreta la distribución de los 240 ECTS necesarios para la obtención del Grado, las universidades tienen la facultad de determinar un número de créditos, estableciendo, en general, asignaturas de carácter optativo.

Así, en cumplimiento de la Orden ECI/3854/2007, es requisito necesario que en el Trabajo Fin de Grado el estudiante demuestre competencias relativas a los módulos de formación básica, didáctico-disciplinar y practicum, exigidas para todos los títulos universitarios oficiales que habiliten para el ejercicio de la profesión de Maestro en Educación Infantil.

En este trabajo, el módulo *de formación básica* nos ha permitido comprender el proceso educativo y de aprendizaje, en nuestro caso del lenguaje mediante la investigación de las diferentes teorías de adquisición de lenguaje presentes en este trabajo. Hemos podido conocer también la dimensión pedagógica de la interacción con los iguales y en gran medida con los adultos cuando estos últimos hacen uso del lenguaje infantil. La observación del proceso de aprendizaje de la lengua nos puede al mismo tiempo ofrecer información del proceso evolutivo del niño, así como ayudar a la identificación de dificultades del aprendizaje, disfunciones cognitivas y las relacionadas con la atención. También nos permite identificar trastornos, sobre todo relacionados con la atención y la percepción auditiva; o incluso detectar carencias mediante el lenguaje que se emplea con el niño. SE analizan e incorporan cuestiones relevantes de la sociedad actual, así como la incorporación cada vez más temprana de los niños y niñas al sistema educativo, lo que nos ha hecho plantearnos el uso del lenguaje infantil en la escuela.

El módulo *didáctico y disciplinar* es el modulo más presente en nuestro trabajo, ya que engloba el aprendizaje de la lengua, las teorías sobre la adquisición del lenguaje, técnicas de expresión oral, tradición oral, etc. El lenguaje infantil en euskera es parte de la tradición oral de esta tierra y tiene un registro particular y su uso está dirigido hacia los más pequeños. Este módulo también nos permite enmarcar las ya mencionadas teorías de adquisición del lenguaje, así como el desarrollo del lenguaje infantil y posteriormente adulto.

Asimismo, el módulo *practicum* permite relacionar la parte teórica con la práctica, tal y como hemos hecho en nuestro trabajo. En primer lugar hemos formado un marco práctico sobre el lenguaje infantil, que mas tarde hemos analizado mediante una encuesta realizada a diferentes personas de ámbitos dispares.

Por otro lado, la Orden ECI/3854/2007 establece que al finalizar el Grado, los estudiantes deben haber adquirido el nivel C1 en lengua castellana. Por ello, para demostrar esta competencia lingüística, se redactan también en esta lengua los apartados de *Preámbulo* e *Introduccion*, así como el preceptivo resumen que aparece en el siguiente apartado.

Laburpena

Lan honetan haur hizkeraren elementu desberdinen inguruko ikerketa egin dugu. Hau da, helduek hurrei zuzentzerakoan erabiltzen duten estilo bereziaren inguruko analisia. Horretarako, gaiaren inguruko dokumentazio desberdinen bitartez marko teoriko bat osatu dugu. Bertan hizkuntzaren jabekuntzaren inguruko teoriak eta herrialde desberdinetako kulturetako erabilera eta ikuspuntuak aztertu ditugu. Gainera, arreta berezia eskaini diogu haur hizkera hobeto ulertzen lagundu diguten ezaugarriei, orokorrak alde batetik eta euskarazko haur hizkerarenak bestetik. Ondoren, hizkera honen erabilerari tartea egin diogu eta ikuskera desberdinak daudela antzemanaz, eskolan behar luken tokiaz hausnartu dugu. Lanaren atal praktikoa Iruñerrian perfil desberdineko zenbait pertsonari pasatako inkestaren analisia burutu dugu. Inkesta honetan ainbat esparrutako informazioa jaso dugu: haur hizkeraern erabilera, azltzen diren ezaugarriak, erabiltzaileen perfila, eskolan duen eta behar duen tokia, e.a.

Hitz gakoak: Erabilera; eskola; ezaugarriak; haur hizkera; Iruñerria.

Resumen

En el presente trabajo investigamos los diferentes elementos que constituyen un modo de habla particular en la interacción adulto-niño, esto es el lenguaje infantil (Haur Hizkera). Para empezar, completamos un marco teórico mediante las diferentes teorías acerca de la adquisición del lenguaje, el uso de este lenguaje en diferentes culturas y prestando especial atención a las características del lenguaje infantil en general y del lenguaje infantil en euskera en particular (Euskarazko Haur Hizkera). Más adelante analizamos también el uso que los adultos le dan a este tipo de lenguaje. En la parte práctica de nuestro trabajo examinamos los diferentes puntos de vista de personas de diversos ámbitos que han participado en una encuesta que hemos preparado para esta ocasión y hemos llevado a cabo en Iruñerria. Mediante esta encuesta recogemos datos relacionados con el uso del lenguaje infantil, las características utilizadas, perfil de los usuarios, el lugar de este lenguaje en la escuela, etc.

Haur Hizkeraren ezaugarriak eta erabilera: Orokorretik Iruñerriko eskoletara

Palabras clave: Características; escuela; Iruñerria; lenguaje infantil; uso.

Abstract

In the following document, we have researched about how adults modify their speech when talking to children. This variety of language is called Child Directed Speech (CDS), *Haur Hizkera* in Basque, as we will call it through this essay. First of all, we have investigated different theories about the acquisition of the language and the use of Child Directed Speech around the word. After that, we have analysed the characteristics of this register in general and we have focused then on the Basque language. Apart of that, we have also examined the use of Child Directed Speech from different points and questioned the use of it at school. In order to analyse all this aspects around us, we have done a research though a questioner and meet some of the opinions and experiences of people in Iruñerria. Though the questions we have prepared for this occasion, different aspects of this register have been questioned: use of the Child directed Speech by adults, features in using, characteristics of the users, place it has or should have at school, etc.

Keywords: Child Directed Speech; features; Iruñerria; school; the use.

Aurkibidea

| | |
|---|-----------|
| Introducción | 3 |
| 1. Haur Hizkeraren ikuspegi orokorra | 5 |
| 1.1. Hizkuntzaren jabekuntzaren azalpenak | 5 |
| 1.1.1. Teoria konduktista (Frederic Skinner) | 5 |
| 1.1.2. Jaiotzetiko teoria (Noam Chomsky) | 5 |
| 1.1.3. Teoria konstruktibista (Jean Piaget) | 5 |
| 1.1.4. Teoria soziokulturala (Lev Vigotsky) | 5 |
| 1.2. Haur Hizkera munduan | 6 |
| 2. Haur Hizkeraren ezaugarriak | 7 |
| 2.1. Ezaugarri orokorrak | 7 |
| 2.2. Euskarazko Haur Hizkera | 9 |
| 2.3.1. Maila fonetikoa | 11 |
| 2.3.2. Maila morfosintaktikoa | 12 |
| 2.3.3. Maila lexikoa | 13 |
| 3. Erabilera | 15 |
| 3.1. Erabileraren testuingurua | 15 |
| 3.1.1. Noiz erabiltzen da? | 15 |
| 3.1.2. Nork erabiltzen du? | 16 |
| 3.1.3. Nola erabiltzen da? | 17 |
| 3.2. Haur Hizkeraren erabiltzea egokia al da? | 18 |
| 3.3. Haur Hizkera eta eskola | 19 |
| 4. Gure ikerketa | 21 |
| 4.1. Hipotesiak | 21 |
| 4.2. Metodologia | 22 |
| 4.3. Datuen analisia | 23 |
| Ondorioak eta proposamenak | 31 |
| Erreferentziak | 34 |
| Eranskinak | 36 |
| A. Inkesta eredua | 36 |

INTRODUCCIÓN

En el presente trabajo se analizan los diferentes elementos que constituyen un modo de habla particular en la relación adulto-niño, hablamos del lenguaje infantil (Haur Hizkera). Tras un breve recorrido por las diferentes teorías acerca de la adquisición del lenguaje en la etapa infantil y unas pinceladas entorno al uso de este lenguaje en diferentes culturas, tratamos las características del lenguaje infantil en general y del lenguaje infantil en euskera en particular (Euskarazko Haur Hizkera). En un tercer punto hablamos del uso que los adultos le dan a este tipo de lenguaje y una vez formado el marco teórico sobre el tema analizamos los diferentes puntos de vista de personas de diferentes ámbitos mediante una encuesta realizada en Iruñerria. A través de esta encuesta se recogen, para empezar, datos relacionados con el perfil de los encuestados con el fin de realizar una categorización en cuanto a los diferentes puntos de vista. Un dato importante en este punto es si el encuestado trabaja en la docencia, sobre todo en la etapa de Educación Infantil. Además, se les pregunta si son conscientes de que usan, o no usan, el lenguaje infantil y en su caso, de que características creen utilizar. También se cuestiona el uso en la escuela y si se utiliza en mayor medida en Iruñerria o en pueblos donde se hablan otros dialectos.

A la vista está que habitualmente los adultos cuando se dirigen a los niños hacen uso de un modo de habla diferente al que utilizan con otros adultos. No solo eso, sino que el adulto además tiende a modificar su comportamiento verbal y no verbal en función del niño y se adapta a la capacidad lingüística del niño. Pueden ser varias las razones que llevan al adulto a tomar este tipo de comportamiento, tales como el hacerle comprender mejor el mensaje o captar la atención del niño. Esta modificación de conducta es la que trabajamos mediante este trabajo a través del análisis del lenguaje infantil.

Pero antes de introducirnos de lleno en este trabajo, creemos necesaria una aclaración sobre el concepto de lenguaje infantil. Existen dos corrientes principales a la hora de definir de este concepto.

Por un lado encontramos a los que entienden el lenguaje infantil como el lenguaje de los niños, es decir, el modo en que hablan los niños en su comienzo del aprendizaje del lenguaje. Estas serían las características principales de esta modalidad en los diferentes niveles del lenguaje:

- Fonético: Simplificación de grupos consonánticos para facilitar la construcción fónica.

- Morfosintáctico: Uso incorrecto de las construcciones (cambio de orden de las palabras, etc.).
- Semántico: Utilización incorrecta de las nociones referentes al espacio-tiempo.

Por otro lado tenemos a los que lo definen como el lenguaje utilizado por los adultos a la hora de dirigirse a los niños. Se conoce como lenguaje maternal, *baby talk*, *child's directed speech*, *langaje infantil*, etc. (Zubiri, 2002: 16-17)

Este último modelo es al que hacemos referencia en este trabajo y por consecuencia, el que extenderemos en los próximos apartados. Un modelo de lenguaje que no solo tiene un vocabulario específico sino que también destaca por sus diferentes características a diferentes niveles del lenguaje. Además, cabe destacar el lenguaje infantil en euskera, que es en el que nos centramos en este trabajo y goza de unas características especiales y ricas en diversos aspectos del plano lingüístico. Pese a ello, y aunque hace unas décadas su uso estaba muy extendido, parece que el lenguaje infantil en euskera ha sufrido una bajada en los últimos años.

Pasemos pues a ver todas estas características y cualidades que hemos ido mencionan en este texto.

1. HAUR HIZKERAREN IKUSPEGI OROKORRA

1.1. Hizkuntzaren jabekuntzaren azalpenak

Hainbat dira haurrek hizkuntza ikasteko erabiltzen dituzten metodo eta baliabideak. Egon badaude hizkuntzaren jabekuntzan eragina duten faktoreak, baina teoria desberdinak azaldu dira fenomeno hau deskribatzeko garaian. Jarraian teoria hauetatik zenbait azalduko ditugu.

1.1.1. Teoria Konduktista (*Frederic Skinner*)

Skinnerrek haurraren hizkuntzaren jabekuntzan eragina duten bi faktore aipatzen ditu: Baldintzapen operantea eta imitazioa.

Lehenengoa haurraren esperimentazioan eta ohituretan oinarritzen da eta guraso edo helduengandik jasotako erantzunetan. Haurrak soinu bat egiterakoan gurasoek irribarre edo efektuzko keinu batekin erantzungo diote eta horrek indartu egiten du haurraren sorkuntza.

Bigarren faktoreak behaketa bidezko ikaskuntzari egiten dio erreferentzia, izan ere haurrak modeloak imitatu egiten ditu.

1.1.2. Jaiotzetiko Teoria (*Noam Chomsky*)

Teoria honen arabera hizkuntz gaitasuna egitura mentalean oinarritzen da eta garapen biologikoaren ondorio gisa azaltzen du. Chomsky-k Gramatika Unibertsala aipatzen du, hau da, munduko hizkuntza guztiek komunean dituzten arau gramatikal eta parametro beretsuak. Ezaugarri hauek jaiotzetiko hizkuntzaren jabekuntzarako mekanismo baten barnean kokatzen ditu (*Languaje Acquisition Device*).

1.1.3. Teoria Konstruktibista (*Jean Piaget*)

Autore honek dio haurrak bere ingurunearekin duen hartu-eman edo interakzioari esker lortzen duela hizkuntzaz jabetzea eta ikastea. Gizakiak orokorrean eta haurrak bereziki, inguruan gertatzen dena ulertu nahi dute eta baita haien barnean ematen diren aldaketak ere. Teoria honen arabera haurrek helmugekin lan egiten dute.

1.1.4. Teoria soziokulturala (*Lev Vigotsky*)

Vigotsky-ren arabera ekimen kognitibo guztiak sozializazioari esker gertatzen dira, baita hizkuntzaren ikaskuntza ere. Garapen kognitiboan hizkuntza pentsamenduaren oinarri eta giltzarri

Haur Hizkeraren ezaugarriak eta erabilera: Orokorretik Iruñerriko eskoletara

dela defendatzen du.

Zentzu honetan, Garapen Hurbileko Eremua deritzona azaltzen du, hau da, haurra laguntzaile batekin bere garapenerako eta aurrera pausuak emateko eremua.

Aipatutako teoria hauek esanguratsuak izan daitezke guk ikertzen ari dugun lanean. Izan ere, teoria hauek haur hizkeraren erabilerari buruzko ikuspegi desberdinak baldintzatuko dituzte. Aurrerago hitz egingo dugu gai honen inguruan.

1.2. Haur Hizkera munduan

Hizkuntz jabekuntzaren inguruko zenbait teoria aztertu ondoren eta haur hizkeraren ezaugarri eta erabilerarekin hasi baino lehen, hizkera honek munduko kultura desberdinetan nola agertzen zaigun ikusiko dugu, modu honetan bere erabileraren marko globala osatuz.

Azterketa desberdinak egin dira gai honen inguruan mundu mailan eta egoera eta ikuspuntu desberdinak agertu izan dira. Bryant eta Berrett-ek (2007: 746-751) egindako ikerketak esaterako, haur hizkera unibertsala dela eta kultura guztietan existitzen dela ondorioztatu zuen. Bestalde, beste ikerketa batzuek haur hizkera unibertsala izatea ukatzen dute eta haurrei gramatika ikasteko laguntzen dienaren ideia balioetsia dagoela diote. Kultura batzuetan esate baterako, gurasoek ez diete haien seme-alabei hitz egiten adin zehatz batetara iritsi arte.

Ochs eta Schieffelin-ek (1984: 276-320) Ginea Berriko Papua-ko biztanle diren Kaluli tribukoak aztertu eta deskribatu zituzten bere lanean. Hizkuntz jabekuntzaren prozesua taldean gizarteratzeko balio duela diote. Tribu honetako helduek ez dute haur hizkerarik erabiltzen eta haurrak helduak behatzera bideratzen dituzte. Bi autore hauek hizkuntza gizarteratzea bi motatan bereizten dute. Alde batetik, egoeran ardaztutakoak, non haurrak egoera sozialetara egokitu behar diren; eta bestetik, hurrengan zentratutakoak, hau da, egoera sozialak haurren mailara egokitzen direnak. Haur hizkera azken multzo honetan sartuko genuke.

Zenbait komunitate eta kulturetan, bestalde, haurrei helduei bezalaxe hitz egiten zaie, soilik gramatika alderdi batzuk eta hiztegia modu batera edo bestera egokituz, horrela hitzak modu arruntean esaten diren moduan ikas ditzaten.

2. HAUR HIZKERAREN EZAUGARRIAK

Hainbat ikerketak frogatu duten moduan, helduek beren hizkuntza maila egokitu egiten duten haur txikiengana zuzentzerakoan; zer esan behar duten edota nola esango duten haurraren garapen mailara egokitzen dute (Zubiri, 1995: 178). Egokitzapen hau ez da soilik hizkuntzaren sinplifikazio batean gauzatzen, izan ere, hainbat dira helduak egiten dituen moldaketak haurrari hitz egiterakoan, bai berbalak eta baita ez-berbalak ere.

Haur hizkerak, hizkuntzaren barietate den legez, berezko ezaugarriak ditu. Zenbait autore ditugu esate baterako, euskarazko haur hizkeraren inguruko analisia egin dutenak, baina gehienetan maila lexikoan azaltzen diren ezaugarriak aztertu izan dituzte. Horien adibide ditugu Azkuek (1891), Lekuonak (1978) edo Aurkerena, Garcia eta Zelaiak (1999) eginiko lanak. Bestalde, badira azterketa sakonagoa egin eta beste alorretako ezaugarriak ere aztertu dituztenak. Hauen lanetan oinarrituko gara jarraian aurkeztuko ditugun ezaugarriak azaltzerako orduan.

Hala ere, haur hizkeraren ezaugarriez hitz egin baino lehen, bi multzotan banatu ditugula esan beharra dago. Alde batetik, munduko hizkuntza guztietan unibertsalki betetzen diren tasun batzuk aipatuko ditugu, eta bestetik euskarazko haur hizkerak dituen ezaugarri propioez arituko gara.

2.1. Ezaugarri orokorrak

Esan dugun moduan, badira hizkuntza guztientzako komunak diren haur hizkeraren zenbait ezaugarri eta horiei erreparatuko diegu jarraian.

Hasteko, ezaugarri orokor bezala aipatzearren, haur hizkera kontzeptuari autore desberdinek ematen dioten esanahia ikusiko dugu. Izan ere, zenbait autoreren ustez hizkera mota hau hizkuntzaren azpisistema bat izanen litzateke, beste batzuek aldiz, hizkuntzen estilo berezitat jotzen dute eta hirugarren talde batek uste du haur hizkera aldaketa fonetiko eta lexiko bereziak dituen azpi-kode bat dela (Zubiri, 1995: 178).

Ikerketa gehienek arabera, haur hizkerak honako ezaugarri orokor hauek biltzen ditu:

- Hizkuntza *zehatza* da, hau da, haurraren ingurune hurbilari eta uneko egoerari erreferentzia egiten dio.
- Hizkuntza markatuaren eta keinu adierazkorren bitartez hizkuntza *enfatikoa* lortzen da. Tonua helduekin erabiltzen dena baino altuagoa da eta intonazioa markatuagoa eta

erritmoa motelagoa.

- *Errepikakorra* da, izan ere, bai helduak edo baita haurrak esandako hitzak edo esaldiak errepikatzeko ohitura dago, batzuetan helburu zuzentzailearekin eta besteetan esandakoa osatu edo zabaltzeko.
- Haurrak duen hizkuntza baino konplexuagoa bada ere, helduenarekin konparatuz gero hizkuntza *sinpleagoa* dela ikus dezakegu. Egitura sintaktikoak adibidez, motzagoak izaten dira.
- Hizkuntza *zuzena* eta ongi ahoskatua erabiltzen da.
- Haurraren erantzunak bultzatzeko asmoz *galderazko eta agintezko perpausak* nagusitzen dira.
- Maiztasunez helduak haurraren zuzentzean aditzaren *hirugarren pertsona* erabiltzen du, lehenengoa edo bigarrena erabili beharrenean.

Bestalde, hizkuntzaren maila linguistikoaren arabera haur hizkerak dituen ezaugarriak azaltzerakoan ere, autore desberdinen artean adostasun handia dagoela esan daiteke eta hauek izango lirerateke mailaka azpimarratuko lireratekeen ezaugarri orokor nagusiak (Rondal 1990: 15-53; Serra et al. 2000: 165-171):

- Maila Fonetikoan: Hizkera zuzena eta ongi ahoskatua da, tonu markatuagoarekin eta enfatikoa. Erritmo motelagoa erabiltzen da.
- Maila Morfosintaktikoan: Perpausen egitura helduek erabiltzen dutena baina sinpleagoa eta motzagoa izaten da eta gramatikalki zuzena.
- Maila lexikoan: Puntu honetan azpimarratzekoa da haurrekin erabiltzen den hiztegi berezia. Bita haurraren "orain" eta "hemen" hurbiletik abiatzen dela ere.
- Maila pragmatikoan: Helduaren hizkuntza haurraren gaitasun mailara egokitzen da. Honek aurrera egin ahala helduak ere bere maila igo egingo du.

Zenbait ikertzailek ezaugarri berbal guzti hauetaz gain, ez berbalak diren ezaugarriez ere hitz egiten dute. Esate baterako, Owens-ek (2003:174-175) adierazten du helduek haurrei hitz egitearekin batera keinu eta aurpegi espresio asko erabiltzen dituztela, umea adinean gora doan heinean gutxituz doazenak. Horien artean Owens-ek berak zerrendatutakoak ditugu: keinuak, begirada, aurpegiko espresioak, buruaren mugimenduak eta hurbiltasuna.

Hizkuntzaren egokitzapen honen helburuari dagokionez, esan daiteke hizkuntza guztietan bi

helburu nagusi bilatzen direla. Alde batetik, helburu pedagogikoa du, haurrak ikasketa linguistikoa garatzearen helduak bere maila jaitsi egiten baitu haurrarena baino zerbait konplexuagoa den maila batera. Bestalde, helduak paper zuzentzailea dauka eta errepikapen eta moldaketen bidez gauzatzen du.

Ezaugarri komun hauetaz gain, hizkuntza bakoitzak berezkoak dituen ezaugarriak ditu haur hizkerari dagokionean eta euskaran ere zenbait ezaugarri berezi aurki ditzakegu. Jarraian ezaugarri horietako batzuk aurkeztuko ditugu.

2.2. Euskarazko haur hizkera

Gure hizkuntzak, beste guztiek bezala, berezkoak ditu haur hizkeraren zenbait ezaugarri. Ez da erraza ezaugarri hauei buruzko lanak eta idazkiak aurkitzea, batez ere hizkuntzaren maila linguistiko desberdin guztiak biltzen dituztenak. Aurkitu ditzakegun lan gehienak alderdi lexikoa soilik jorratzen duten hitz bildumak izaten dira.

Lan hauetako adibide bat Lekuonak (1921: 31-37) umeen mintzairari buruz egindakoa dugu. Lan honetan lau ezaugarri nagusi azpimarratu zituen: onomatopeiak, itxura aldatutako hitzak, lexiko prehistorikotik bizirik dirauten hitzak eta aditz laguntzailearen ezabaketa.

- Onomatopeiak: alde batetik izadi batek ateratzen duen berezko hotsa imitatzen dutenak daude (zuzenak) eta bestetik pertsona helduek erabiltzen dituzten hotsak objektuokin tratatzerakoan (zeharkakoak).

- (1) Zuzenak
- Guau-guau*
 - Taka*
 - Pa*

Zeharkakoak

- Purra-purra (oiloekin)*
- Txiki-txiki (txerriekin)*
- Tto-tto (txakurrekin)*

- Itxuraldatutako hitzak: helduen hizkuntzako hitzei moldaketa egiten zaienean. Normalean herskari ahostunak ahoskabeen ordeaz erabiltzen dira.

(2) a. *Bapo* > *Papo*

b. *Goxo* > *Koxo*

c. *Itsusi* > *Itxuxi*¹

- Lexiko prehistorikotik bizirik dirauten hitzak: hainbat dira umeen mintzairan fonema bera errepikatuz osatzen diren hitzak. Lekuonak (1921: 31-37) aurkezturiko “aspaldiko” lexikotik bizirik dirautenak esate baerako.

(3) a. *Papa* ‘ogia’

b. *Mama* ‘ura’

c. *Txitxi* ‘haragia’

d. *Nini* ‘umea’

e. *Ttitti* ‘bular’

d. *Koko* ‘arrautza’

- Aditz laguntzailearen ezabaketa: haurren ulermenari laguntzek asmoz hizkuntza errazteari ekiten zaio eta horretarako metodo bat aditz laguntzailearen ezabaketa izaten da. horretaz gain, aditz-izena behar den denboran eman ohi da: lehen, orain edo gero.

(4) a. *Nork egiten zuri?*

b. *Nork eman?*

c. *Gero emango nik.*

Hala ere, izan badira lexikoaz aparte euskarazko haur hizkeraren beste ezaugarri batzuk aztertu dituztenak ere. Horietako bat Juan Jose Zubiri goizuetarra dugu, gai honen inguruan hainbat artikulu eta testu idatzi dituena. Bere lanerako Manuel Lekuonak (1921: 31-37)

¹ Lan hoentan azaltzen diren adibideak J.J. Zubirik bi urtetan zehar bi haurri egindako jarraipenaren ondoren bildutakoak dira. Ikus Zubiri, J.J. (1995). “Euskarazko haur hizkuntzaren berezitasunak”. In Huarte de San Juan. 177-203, 1.

egindako azterketa horretatik abiatu eta Itziar Idiazabalen gidaritzapean lanean diharduen ikerketa talde batek jasotako datuak ere erabili ditu, besteak beste.

Zubirik (1995: 179-200; 2002: 19-21) egindako sailkapenean haur-hizkuntzaren ezaugarri berezko eta bereizleak hizkuntzaren hiru maila linguistikoetan banatzen ditu: maila fonetikoan, maila morfosintaktikoan eta hiztegi mailan.

2.2.1. Maila fonetikoa

Behin baino gehiagotan esan dugun bezala, helduak haurraren zuzentzean bere hizkuntza moldatu egiten du eta arlo fonetikoan aldaketa nabarmenak antzeman daitezke. Fonema kontsonantikoaren arloan gertatzen dira batez ere, batez ere txistukarien sailean, sabaikari bihurtzeko joera nabarmena baitute. Honekin sonoritate gehiago lortzen da eta haurraren arreta hobeto mantentzen da.

Orokorrean esan daiteke txistukari afrikatuak eta frikariak (<z>, <ts>, <z> eta <s>) sabaikari bihurtzen direla (<tx> eta <x>). Gertaera hau edozein hitz motarekin gertatzen da, bai hitz arruntekin zein izen bereziekin ere, baita deklinabide atzizkietan ere.

1. taula. Txistukarien aldaketa fonetikoa (Zubiri, 1995:180)

| Hotsa | Aldaketa | Adibideak |
|-------|----------|--|
| tz | > tx | <i>etzan > etxan, motz > motx, hotz > hotx...</i> |
| ts | > tx | <i>jeitsi > jeitxi, itsaso > itxaxo, itsusi > itxuxi...</i> |
| tx | = tx | Bere horretan geratzen dira |
| z | > x | <i>izutu > ixutu, moztu > moxtu, zer > xer...</i> |
| s | > x | <i>esan > exan, seguru > xeguru, gaizto > gaixto...</i> |
| x | = x | Bere horretan geratzen dira |

Gainera, hitz soiletan ez ezik, hitz haurrekin komunikatzeko horren ohikoak diren hitz kateetan ere antzeman dezakegu aldaketa:

- (5) a. *Xer ari xara xu?*
 b. *Ex al duxu ikuxten xikindu egingo xarela!*
 c. *Xer exan du Egoitxek?*

Hain era sistematikoan ez bada ere, lehen aipatutako txistukarien antzera, sabaikari

bihurtzen diren beste fonema batzuk ditugu.

2. taula. Beste fonema batzuen aldaketa (Zubiri, 1995:181)

| Hotsa | Aldaketa | Adibideak |
|-------|-----------|--|
| t | > tt | <i>kontua > konttua, bat > batt...</i> |
| l | > ll | <i>polita > pollita, pala > palla...</i> |
| r | = ll (dd) | <i>beroa > belloa, burua > bullua...</i> |
| rr | > ll (dd) | <i>ekarri > ekalli, etorri > etolli...</i> |
| d | > dd | <i>adarra > addarra, ederra > edderra...</i> |

Maila fonologikoa azterteaz bukatzeko aipatu beharra dago euskaraz, hipokoristikoak sortzeko eta txikitasuna adierazteko atzizkiak bustiak direla: *-txo*, *-tto* eta *-ño*.

2.2.2. Maila morfosintaktikoa

Eguneroko erabilera sakonki aztertu gabe, beti ere Zubiriri (1995) jarraiki eta haren adibideak baliatuz, orokorrean bost ezaugarri nagusi azpimarratu daitezke haur hizkeraren maila morfosintaktikoan.

Hasteko, hitz batzuk izen berezi bezala erabili eta deklinatu egiten direla antzematen dugu, hau da, artikulurik gabe azaltzen dira:

- (6) a. *Non da pitxitxi? (Non da pitxitxia?)*
 b. *Emaiozu hau pitxitxiri. (Emaiozu hau pitxitxiari.)*

Dena den, badira batzuetan mugatzailearik gabe agertzen direnak eta beste batzuetan, berriz, inguru berdintsuetan, mugatzailearekin datozenak. Baina badira ia gehienetan mugatzailearekin agertzen zaizkigunak ere. Hori gertatzearen arrazoia ez dago batere argi.

- (7) a. *Non da pitxitxi?*
 b. *Non da totoa?*

Bigarrenik, absolutiboan bakarrik joateko joera duten hitzak ditugu, gehienetan gainera singularrean doazenak: *mama* 'ura', *pupua* 'mina', *kaka* 'txarra, zikina...', etab.

Orokorrean, bizidunen kasua alde batera utziz, haur hizkeran agertzen diren hitz gehienekin gertatzen da fenomeno hau, baina badaude pluralean ere doazenak, batez ere erreferente aniztuna dutenean: *kikak*, *mainak*...

Hirugarrenik, zenbait elementu edo sintagma esaldiaren hasiera eta amaieran errepikatzeko joera dagoela aipatuko dugu. Badirudi baliabide hau haurren ulermenari laguntzeko erabiltzen dela, batez ere, galde-erantzun sistemaren barnean. Hona hemen Zubirik (1995: 189) agerturiko zenbait adibide:

- (8) a. *Ama non da ama?*
 b. *Amona etorri da amona?*
 c. *Pitxitxiri eman al diozu ñañañan pitxitxiri?*

Laugarren ezaugarri bezala, aditz laguntzailearen ezabaketa aipatuko dugu. Kasu honetan ere, haurren ulermena errazteko dela dirudi, "bigarren mailako" faktoreak alde batera utziz. Hala ere, aditzaren aspektua mantendu egiten da:

- (9) a. *Nik ekarri eta zuk eman.*
 b. *Etorri, nik (zuri) emango yogur.*
 c. *Zeinek abesten zuri?*
 d. *Zer garbitu zuk?*

Azkenik, hitzen kategoria gramatikalarik erreparatuko diogu. Hitz batzuetan argi ikusten da izenak direla, esate baterako: *pitxitxi, kika, pa...* Baina badaude ekintzak adierazteko erabiltzen diren zenbait hitz, egiazko aditzak ez direnak baizik eta sasi-aditz.

- (10) a. *Pupu hartu*
 b. *Lolo egin*
 c. *Pa eman*

Gainera, badira azalpen berezia eskatzen duten hitz gutxi batzuk: *aupa, apapa eta (p)apo*. Hauen kategoria ez da argi geratzen eta testuinguruaren arabera asmatu beharra dugu.

2.2.3. Maila lexikoa

Euskal haur hizkerak aberastasun handia du maila lexikalean, izan ere asko dira haur hizkerako berezko hiztegi berezia osatzen duten hitzak. Esan beharra dago erregistro-mota honi bakarrari dagokiola hiztegi honen erabilera (Zubiri, 1995: 192).

Izan badira euskal haur hizkerako hiztegia jasotzen ahalegindu diren autoreak. Horien artean aspaldi Azkuek (1891: 24-25) jasotako bilduma daukagu; denboran hurbilago M. Lekuonak (1978: 569-573) bildutako hiztegia edota Aurkerena *et al*-ek (1999) eman dituzten hitz zerrendak. Bestalde, jakina da azken urte hauetan herri aldizkarietan, tokian tokiko aldaerak

jasoz, zerrenda edo bilduma batzuk egin izan direla (*Apud. Elizagoien, 2013:18*).

Hiztegi berezi hau osatzen duten hitzak aztertzen ditugunean, berezko ezaugarriak dituztela ikus dezakegu. Jarraian, ezaugarri hauei erreparatuko diegu arlo desberdinen bitartez.

- Arlo fonetikoak:

Arlo honetan nabarmentzekoa da hitzen %60 baino gehiago herskari ahoskabez hasten dela (<p>,<t>,<k>). Gutxi dira herskari ahostunez hasitakoak (,<d>,<g>) eta hauek batez ere hitz berriak edo bereziak dira (*brun-brun* eta *gol*). Gainerakoak (%20 inguru) ozenen sailean sartzen dira eta gehienak sudurkariz hasten dira, sudurkari herskariak gailentzen direlarik. Bestalde, oso urriak dira bokalez hasitako hitzak (Zubiri, 1995: 196).

3. taula. Haur hiztegiaren analisia

| Hitzen hasiera | | Adibideak |
|---------------------------|-------------|--|
| Herskari ahoskabeak (%60) | p | <i>Pa, pio-pio, pitxitxi...</i> |
| | t | <i>Taka-taka, tetea, txitxi...</i> |
| | k | <i>Kaka, kixka-kixka, kuku...</i> |
| Herskari ahostunak (%10) | b | <i>brun-brun.</i> |
| | d | - |
| | g | <i>Gol.</i> |
| Ozenak (%20) | sudurkariak | <i>Fu, mainak, mama, ninia...</i> |
| | l | <i>lo-lo.</i> |
| Bokalez hasitakoak (%10) | a | <i>Apapa, (p)apo, arre-arre, aupa.</i> |
| | o / u | <i>o-o (lo-lo), uau-uau.</i> |

- Arlo formalak:

Hitzen osaera berezia da hemen azpimarratzekoa. Hitz gehienak hasierako silaba errepikatuz sortzen dira, batzuk aldatuta txikiren batekin eta beste batzuk bokala aldatuz: *kaka, momo, ñañam, (p)apo, kika, kixka...*

Beste batzuk hitzaren hasierako forma errepikatuz osatzen dira: *arre-arre, maite-maite, tas-tas...* Orokorrean hitz sinpleak direla esan daiteke.

- Hitzen izaera:

Izaerari dagokionez, hitzak bi multzotan sailkatuko genituzke. Alde batetik izaera onomatopeikoa duten hitzak ditugu, bai hotsak islatzen dituztenak (*pio-pio*) eta baita ekintzak adierazten dituztenak ere (*kixka-kixka*). Bestalde, haur hizkeraren berezko hitzak ditugu, onomatopeien zenbait ezaugarri dituztenak baina izaera berezia eta tratamendu desberdina eskatzen dutenak: *nini, apapa, kaka, txitxi...*

3. ERABILERA

Haur hizkeraren erabilera hautazkoa dela eta helduen esku dagoela esan dezakegu, haiek erabakitzen baitute erabili edo ez eta noiz eta nola erabili.

Datorren atal hau Juan Jose Zubirik *Hizpide* aldizkarian argitaraturiko artikulutik jasotako informazioarekin osatu dugu (Zubiri, 2002: 19-21). Bertan erabileraren hiru arlo jorratzen ditu. Alde batetik, haur hizkera noiz erabiltzen den aztertzen du, hau da, zein egoeratan eta zein unetan jotzen duen helduak hizkera honetara. Beste alde batetik, erabiltzaileen tipologia zehazten saiatzen da, nork erabiltzen duen alegia. Izan ere, zenbait helduk hizkera hau erabiltzeko joera handiagoa dute beste batzuek baino, eta badaude haur hizkera erabiltzen ez dutenak ere. Azkenik, hizkera hau nola erabiltzen den ikusiko dugu, edo beste modu batera esanda, hizkuntzaren aldetik zein ezaugarri morfosintaktiko aurki daitezkeen hizkera honen erabileran.

3.1. Erabileraren testuingurua

3.1.1. Noiz erabiltzen da?

Plazaratzen dugun lehengo galdera honi erantzuna bilatzeko haurraren adin edo garapen mailara jo behar dugu. Garapena diogunean, ez gara soilik garapen kronologikoaz ari; garapen linguistikoari ere egiten diogu erreferentzia. Normalean, eskutik hartuta doazen bi alderdi dira, baina ez da beti horrela gertatzen.

Orokorrean esan dezakegu helduek haurrek hitz egiten ez duten bitartean komunikazio ahaleginean erabiltzen dutela batik-bat haur hizkera, bere alderdi berbal eta ez berbalen bitartez. Hau da, haurraren aro aurrelinguistikoan erabiltzen da batez ere haur hizkera.

Haurra aro linguistikoan sartzen doan heinean, bi urte inguru dituenean, helduak hizkera hau alde batera uzten hasten da eta helduen eredu linguistiko arruntera jotzen du. Hala ere, heldu guztiek ez dute berdin egiten eta normalean haurrarekin sortu nahi duten harremanaren arabera jokatzeko dute.

Prozesu hau ez da egun batetik bestera gertatzen, ezta kasu guztietan modu berdinean ere, baina ohikoa da haurra aro gramatikalean sartzean, gurasoak behinik behin, haur hizkera guztiz baztertu eta eredu ona edo normala hartzea.

Honekin erlazionaturik agertzen zaigun galdera honako hau da: noiz arte erabiltzen da haur hizkera? Lehen ere esan dugun moduan, helduaren esku dagoen erabakia da baina, orokorrean esan dezakegu normalean aro linguistikoan sartu arte erabiltzen dela. Noski, ez da bat-batean gertatzen, baina poliki-poliki egoera eta une berezietara soilik mugatuko da hizkera honen erabilera. Haurrak min hartzen duen momentuetan esate baterako, helduek eredu honetara jotzeko ohitura izaten dute. Dena den, aipatzekoa da haur hizkeraren zenbait ezaugarri, batez ere hiztegi aldetik, iraun egiten dutela. Ez da arraroa lau edo bost urteetan *txitxi* hitza bezalakoak erabiltzea, esate baterako.

3.1.2. Nork erabiltzen du?

Hizkera hau helduek erabiltzen dutela badakigu, baina desberdintasun handiak topa ditzakegu batzuen eta besteen erabilera mailan. Hasteko, aipatu beharra dago badaudela haur hizkera erabiltzearen alde ez daudenak, eta horiek noski, ez dute erabiltzen: haurrari helduen ereduari zuzentzen zaizkio.

Bestalde, haur hizkera erabiltzen dutenen artean badaude gehiago erabiltzen dutenak eta gutxiago erabiltzen dutenak, helburu didaktikoa medio. Hurbilenetik hasita, gurasoak dira hizkera hau erabili bai, baina alde batera uzten lehenengoak direnak. Beranduen baztertzen dutenak aitona-amonak izaten dira, hurbiltasun afektiboa bilatuz edo. Bi jarrera hauen artean haurrarekin harreman urria duten helduak daude, haren garapen linguistikoa ezagutu gabe hurbiltasuna lortzeko hizkera honetara jotzen dutenak.

Aipatzekoa da, helduez aparte, haurrek berek ere txikiak haur hizkera erabiltzeko joera dutela. Hala ere, ez dago argi zein adinarekin barneratu eta erabiltzen ikasten duten erregistro hau. Ekar dezagun gogora Elizagoienek bere Gradu Bukaerako Lanean aipatutakoa:

“Horietaz gain, aipatzekoa da, azterturiko egoeretan M8 subjektuak BHH anitzez ere gehiago erabiltzen duela helduek baino. Beraz, haurrek ere HH erabiltzeko gai izan daitezkeela nahiko baieztatua gelditu da, baina kontua da, haurrek zer adinetik aurrera barneratzen ote dute zehaztea arraz zaila dela. Kasu horretan ikusi dugunaren arabera, erran daiteke 8 urteko mutil batek ederki barneratuak edo ikasiak dauzkala BHH-ren ezaugarriak eta gainera modu egokian erabiltzeko gai dela, izan ere, baitakigu ume horrek helduen hizkeran hitz egiteko inolako arazorik ez daukala, hots, bi hizkerak ongi bereizten dituela”(2013:28).

3.1.3. Nola erabiltzen da?

Gorago hizkera honen ezaugarriak ikusi ditugu, bai orokorrak baita gure hizkuntzan aurkitzen direnak ere, baina orain egoera errealetan Haur Hizkera nola erabiltzen den aztertuko dugu. Horretarako, aurretik finkatutako hiru maila linguistikoak jarraituko ditugu: maila fonetikoa, maila morfosintaktikoa eta maila lexikoa.

- Maila fonetikoa:

Ikusi dugun moduan, kontsonanteak sabaikaritzea da eremu honetan gertatzen den aldaketarik esanguratsuena. Baina helduak ez ditu esandako kontsonante guztiak sabaikaritzen; bere borondate eta intentzionalitatearen arabera egiten du eta horren atzean haurrekin sortu edo lortu nahi duen harremana dago.

Esaldi berdinen barnean edota hitz berean ere gerta daiteke kontsonante bat sabaikaritzea eta bestea ez:

(11) Sartu xorroan.

Batzuetan ere, haurren ekoizpen linguistikoek bultzatzen dute aldaketa, helduak imitatu egiten du haurrak esandakoa, nolabait ere gaizki esan duela azpimarratzeko:

(12) a. Moxto nahi dut.

b. Moxto nahi duzula?

- Maila morfosintaktikoa:

Haur Hizkeraren ezaugarri morfosintaktikoetan aipatu dugun moduan, hitz onomatopeiko gehienak eta hizkera honetako hainbat hitz artikulurik gabe erabiltzen dira, izen bereziak bezala jokatzeko dutelarik:

(13) a. Eman **brun-brun** (eman brun-bruna).

Haur Hizkeraren ezaugarriak eta erabilera: Orokorretik Iruñerriko eskoletara

b. *Nahi duzu ñañan (nahi duzu ñañana)?*

Hemen ere imitazioa garrantzitsua da eta gurasoak jarrera zuzentzailea izaten du normalean.

Bestalde, ekintzak adierazteko sasi-aditzak erabiltzen direla ikusi dugu. Aditz lagunik onartzen ez dutenez, pertsona, denbora e.a. adierazteko "makulu" aditzen laguntza izaten dute, gehienetan egin aditzaren bitartez:

(14) *Tas-tas egin*

Gainera sasiaditzen beste ezaugarri berezi bat ere badute: ekintza adierazten duen subjektua, kasuari dagokionez, absolutiboan edo ergatiboan ager daiteke. Esan daiteke absolutiboaren azpian egitura iragangaitza dugula eta ergatiboaren sakonean egitura iragankorra.

(15) a. *Ni aupa → Nik aupa*

b. *Egoitz plisti-plasta → Egoitzek plisti-plasta*

- Hiztegi maila:

Agerikoa da hizkera mota honek hiztegi propioa duela eta ikusi dugun moduan onomatopeiek paper garrantzitsua dute hitzen sorreran. Gainera, onomatopeiak sabaikaritze fenomenoarekin elkartzean hitz bereziak sortzen dira. Askotan, hitz hauek helduen hizkuntzan dutenarekin batera agertzen dira:

(16) a. *Non da ttatta? Non da zapata?*

b. *Erori egin da! Punpa egin du!*

Esan beharra dago hiztegi berezi honetako hitz solteak izaten direla, Haur Hizkera baztertzean, desagertzen diren azken elementuak. Lau-bost urterekin oraindik ere *punba* edo *txitxi* bezalako hitzak ager daitezke.

3.2. Haur Hizkera erabiltzea egokia al da?

Hizkuntzaren jabeakuntzaren inguruko teoriari jarraiki, bi dira Haur Hizkeraren erabilerarekiko agertzen zaizkigun jarrerak. Alde batetik, hizkera honen erabileraren alde daudenak ditugu, hizkuntzaren jabeakuntzarako tresna egokia dela diotenak. Bestalde, Haur Hizkera hizkuntza ikasteko beharrezkoa ez dela defendatzen dute beste batzuek eta talde honetan sartuko ditugu hizkera hau erabiltzearen kontra daudenak ere.

Orokorrean, munduko herrialde gehienetan erabiltzen da modu batean edo bestean Haur Hizkera. Gainera, normalean hizkuntzaren aldaera diskurtsiboa izaten dela esan daiteke. Hainbat dira erabilera honen alde agertu diren eta Haur Hizkera erabiltzearen onurak azaldu dituzten hizkuntzalari eta adituak. Onura horien adibide batzuk haurren arreta erakartzea edo asmo afektiboak komunikatzea izan daitezke (Fernald, 1989: 479-480).

Hala ere, badaude Haur Hizkera itsusitzat artzen dutenak, zenbait guraso barne, eta honen erabilera negatiboa dela uste dute. Hizkuntzaren jabekuntzarako eragin txarra duela defendatzen dute eta hurrek hizkuntza eta fonemak gaizki ikasten dituztela diote (Gavrilova, 2012: 32).

Aipatzekoa da, eta gorago ere esan dugu, munduko zenbait komunitatek ez dutela Haur Hizkerarik erabiltzen (Pinker 1994: 39-40) eta zenbait ikerketek ondorioztatu dute ere Haur Hizkera ez dela unibertsala ezta beharrezkoa ere hizkuntzaren jabekuntzarako (Ochs & Schieffelin 2008: 6). Ez hori bakarrik, Ochs, Salomon eta Sterponi-k 2005-ean burututako lan batean Haur Hizkera Euro-Amerikarraren erabilera zalantzan jarri zuten garapen neurologikoan arazoekin diagnostikatutako haurrengan. Honen adibide autismoa duten haurrak ditugu. Haur hauei ez die batere mesederik egiten gehiegizko intonazioak, aurpegiko keinuek edota hizketan behartzeak. Aurpegiko edota eskuekin egiten ditugun keinuek haur hauei arreta galtzea eragiten diete eta hizketarako arazoak izan ohi dituztenez hobe izaten da beste modu batean komunikatzea, piktogramen bitartez esate baterako.

3.3. Haur Hizkera eta eskola

Gorago Haur Hizkeraren erabileraren testuinguruaren inguruan solasetan ibili gara (cf. § 3.1) eta testuinguru horren parte bat eskola izan daiteke. Nahiz eta hizkera mota hau normalean etxe-giroan eta etxekeekin erabiltzen den, gaur egun bizi dugun egoera aztertuta ez da arraroa suertatzen Haur Hizkera eskolan ere erabiltzea (Zubiri, 2002: 29). Izan ere, egungo familien errealitatea asko aldatu da azken urteetan eta horrek seme-alaben eskolaratzea geroz eta lehenago egin behar izatea ekarri du. Haurrak zenbait kasutan hitz egiten ere jakin gabe,hots, garai aurre-silabikoan joaten dira eskolara eta haien hizkuntzaren jabekuntzan funtsezkoa den aroa den honetan lagungarri suerta daiteke normalean etxekoa den hizkera hau erabiltzea.

Euskal Haur Hizkeraren kasuan, kontutan hartzekoa da Zubirik bere lanaren ondorio gisa

Haur Hizkeraren ezaugarriak eta erabilera: Orokorretik Iruñerriko eskoletara

aipatzen duena: “Inguruko hizkuntzekin erkatzen badugu berehala ohar gaitzke oso eremu aberatsa eta oparoa dugula aipatutako hiru mailetan. Beste mailak aparte ezin badira utzi ere, maila fonetikoa azpimarratu nahi genuke bereziki, oso jokabide zabala eta malgua uzten baitio helduari haurrarekin hitz egiteko garaian” (Zubiri, 1995: 201).

Hitz hauek irakurrita pentsa genezake euskal Haur Hizkera haur txikiekin erabiltzea aberasgarria izan daitekeela eta ez hori bakarrik, izan ere garai honetan oso garrantzitsua da hizkera honek ere ematen duen hurbiltasun afektiboa. Esandakoa batez ere Haur Hezkuntzako lehenengo etapari dagokio, hau baita haurrak hizkuntzaren jabeakuntzarako hastapenak finkatuko dituen momentua.

Baina Haur Hizkerak Curriculum-ean duen tokia aztertzen hasten bagara, zail egingo zaigu hizkera mota honi buruzko argibide edo informazioa aurkitzea. Curriculum-ak Haur Hezkuntza bi etapatan banatzen du: lehenengoa 0-3 urte bitartekoa eta bigarren etapa 3-6 urte bitartekoa.

Haur Hezkuntzako lehenengo zikloko Foru Dekretuak (FD 28/2007) ziklo honi buruz dioena aztertuko dugu jarraian hizkuntzari buruz dakarrena ikusteko. Etapa honetan bost arlo desberdintzen ditu eta horien artean laugarrena da guri interesatzen zaiguna, komunikazio eta hizkuntzena hain zuzen ere. Bertan, hizkuntzaren funtzio eta erabileraren garapenari erreferentzia egiten dio eta harreman afektiboak garrantzitsutzat ditu gai honetan. Hizkuntzaren jabeakuntza haurrak inguruan entzuten eta behatzen duena xurgatuz garatzen duela esaten digu, bai hitzen esanahiaren aldetik baita beste aspektuetan ere (tonua, fonologia, e.a.).

Helduek prozesu honetan duten paperaren inguruan haurrari eredu aberatsa, argia eta ongi egituratua eskaini behar diotela esaten du. Hemen dugu bai gurasoek eta baita irakasle eta hezitzaileek ere erabili behar luketen hizkuntza mota. Egia da hiru adjektibo hauek ikuspuntu desberdinetatik ikusi daitezkeela eta gure haur hizkuntza deskribapen horrekin bat etorri daitezkeela. Hala ere, aipatutako dokumentuan ez da inondik inora aipatzen hizkera hau.

Bigarren ziklorako Foru Dekretuan (FD 23/2007) hiru bloketan banatzen dira edukiak eta hirugarrena da gure lanarekin harreman zuzena duena, hots, hizkuntzaren komunikazio eta errepresentazioarena. Bertan hizkera desberdinen erabileraren inguruan hitz egiten da eta intentzio komunikatiboaren arabera kodigo desberdinetara egokitzeaz. Baina Haur

Hizkeraren hutsunea sumatzen dugu berriz ere, nahiz eta etapa honetan horrenbesteko garrantzirik ez eduki. Garai honetan ahozko hizkuntzak duen garrantzia azpimarratzen da eta irakasleak eskaini beharreko eredua aberatsa eta zuzena izan behar duela dio.

Azkenik, atal hau amaitzeko, beharrezkoa iruditzen zaigu irakasle eta hezitzaileen papera azpimarratzea. Azken finean, haiek dira eskolan haurarekin zuzenean arituko direnak eta haiek daukate azken erabakia hizkera hau erabili edo ez erabili aukeratzeko orduan. Beraz, garrantzitsua deritzogu profesional hauen formazioa eta sentsibilizazioa gai honen inguruan.

4. GURE IKERKETA

4.1 Hipotesiak

Dagoeneko ikertu nahi dugun gaiaren inguruko informazio ugari bildu dugu eta Haur Hizkeraren ikerketarekin lotuko ditugun aspektu desberdinak ikusi ere. Haur Hizkeraren ezaugarriak aztertuz konturatu gara txikiengana zuzentzen garenean egiten ditugun hizkeraren moldaketak anitzak izan daitezkeela. Hizkuntzaren alderdi asko hartu behar dira kontuan, berbalak zein ez-berbalak direnak, eta noiz, nork eta nola erabili daitezkeen ikusi dugu (cf. §3.1). Haurrenganako egokitzapen hauek helduaren esku daudela ere ikusi dugu (cf. §3.1.2) eta gainera, zonaldeen arabera aldatu egiten dira. Batzuk gehiago, besteek gutxiago eta egonen dira Haur Hizkera erabiltzen ez dutenak ere. Gure galdeketaren bitartez erabilera eremu horien berri jaso dugu.

Haur Hizkeraren inguruko dokumentazioa aztertu ondoren, hainbat dira gai honi buruz gogora datozkigun galdera eta zalantzak. Gure hipotesiak ere baditugu eta horiek baieztatu edo ukatuko ditugu ikerketaren honen bitartez. Hona hemen hasierako hipotesiak:

- Haur Hizkera batez ere pertsona helduek (60 urtetik gorakoak) eta emakumeek erabiltzen dute. Aitona-amonek esaterako, beren bilobekin Haur Hizkera erabiltzeko joera handia dutela uste dugu, hurbiltasun afektiboa lortzeaz gainera, haurren garapen linguistikoaz oso kontziente ez direlako.
- Gazteen artean, euskaldun berri asko daudela eta, nagusiki hizkera honen ezaugarri fonetiko eta batez ere morfosintaktikoak sumatuko dira. Haur Hizkera osatzen duten hitz berezi asko ez zituzten haiek txikiak zirenean erabili eta beraz, ez dituzte ezagutuko.

- Irakasleek ohitura gutxiago dute Haur Hizkera erabiltzeko eta izatekotan, hizkera honek propio dituen ezaugarrietako batzuk bakarrik baliatuko dituzte. Honen arrazoiak desberdinak izan daitezke. Alde batetik, haur talde handiak izatean zailago egiten da Haur Hizkera erabiltzea. Beste aldetik, arrazoi pedagogikoak egon daitezke.

Hipotesi hauek aintzat hartuz, haien egiaztapena egiteko gure inkesta izaera desberdineko gizon eta emakumeei pasatu diegu.

4.2. Metodologia

Ikerketa aurrera eramateko baliabidea inkesta izan da (cf. 1.eranskina) eta metodo kualitatibo zein kuantitatiboa erabili dugula esan daiteke. Inkestak eskuz banatu ditugu eta parte hartzaileei galderak erantzuteko egun batzuk eman ondoren berriz ere eskuz jaso ditugu.

Inkesta honek Iruñerriko jendeak Haur Hizkeraren inguruan duen iritzi eta ikuspuntua ezagutzeko balio izan digu, baita galdetutakoen artean hizkera honek duen erabilera maila aztertzeke ere. Horrexegatik, eta gaiaren inguruko aspektu desberdinak jorratzeko asmoz, hamar galderatako inkesta prestatu dugu.

Alde batetik, Iruñerriko jendearen iritzia ezagutu nahi izan dugu Haur Hizkeraren inguruan, eta beste aldetik, haiek nola erabiltzen duten ikusi. Hamar galderen bitartez inkestatuen iritzi eta esperientziak jaso ditugu aspektu desberdinak ezagutzeko:

- Inkestatutakoen izaera: adina eta sexuaren arabera aztertuko ditugu. Hezkuntza arloan lan egiten duten ere kontutan hartu dugu, batez ere Haur Hezkuntzako etapan. Horrela, Haur Hizkera eskolan erabiltzen duten ere ikusteko aukera izan dugu, bai publikoan eta baita kontzertatutako ikastoletan ere. Euskalkirik erabiltzen duten ere jakin nahi izan dugu.
- Haur Hizkeraren erabilera eta ezaugarriak: Haur Hizkera erabiltzen duten edo ez ikusteko ea haurrei helduekiko desberdin hitz egiten dietela kontziente diren galdetu diegu. Gainera, Haur Hizkeraren zein ezaugarri erabiltzen dituzten ere ikusi dugu eta zein adinetan erabiltzen den gehienbat.
- Haur Hizkera eta eskola: alor hau jorratzeko irakasle diren inkestatuei erabiltzen duten edo ez eta erabiltzekotan ea zein egoeratan egiten duten galdetu diegu.

Eskolan erabiltzearen egokitasuna, aldiz, inkestatu guztiei ireki diegu, haien iritziak ere jasotzeko.

- Haur Hizkera Iruñerrian: Inkesta honetan parte hartu duten pertsona guztiek Iruñerrian lan egiten duten arren, horietako batzuk jatorriz beste zonalde batekoak dira. Horrela Haur Hizkerak Iruñerrian duen lekua eta beste euskalki batzuekin konparatuz duen erabilera ikusi dugu.

Ikerketa honetako parte-hartzaileen aukeraketa egiteko orduan, berriz, hauek dira jarraitutako irizpide nagusiak:

- Adina: lau multzo bereizi ditugu adin taldeak osatzerakoan (18 urtetik beherakoak, 18-35 urte artekoak, 36-60 urte bitartekoak eta 60tik gorakoak). Lehenengo multzoan 18 urtetik beherako gazte baten inkesta soilik jaso dugu, bigarren taldean 5 inkesta jaso ditugu, hirugarrenean 11 eta laugarrenean beste 11.
- Sexua: Emakumeak eta gizonak aukeratu ditugu, nahiz eta gizonak baino emakume gehiago inkestatzea suertatu zaigun.
- Hezkuntzan lan egiten dutenak: inkestatutakoen %68 Haur Hezkuntzaren alorrean lan egiten du.
- Parte hartutako guztiak Iruñerrian bizi edo lan egiten dute.

4.3. Datuen analisia

Haur Hizkeraren alderdi desberdinak jorratu ditugu gure atal teorikoan eta horiek aintzakotzat hartuz gure inkesten bitartez jasotako informazioa aztertu eta interpretatzeko momentua iritsi zaigu. Horretarako, ikusitako esparru desberdinetatik bideratuko dugu gure analisia.


Lehenik eta behin, galdeketan parte hartutako pertsonen perfilen arabera Haur Hizkeraren erabilera ikusiko dugu. Ondoren hizkera hau nola erabiltzen duten aztertuko dugu, hau da, gorago aipatu ditugun zein ezaugarri agertzen dituzten. Honekin batera, Haur Hizkera noiz erabiltzen den ere ikusiko dugu. Alde batetik, orokorrean zein haurrekin erabiltzen duten eta bestetik, irakasleen kasuan, ea eskolan erabiltzen duten edo ez ikusiko dugu. Eskolaren alorreko beste galdera baten bitartez galdetutakoek Haur Hizkerak eskolan lekua izan beharko lukeen edo ez galdetu diegu eta honen inguruko erantzunak plazaratuko ditugu.

Haur Hizkeraren ezaugarriak eta erabilera: Orokorretik Iruñerriko eskoletara

Gainera, irakasleei ere tarte berezia eskainiko diegu. Bukatzeko, Haur Hizkera euskalkietan edo Iruñerrian non erabiltzen den gehiago esango digute inkestek, edo horri buruz inkestan parte hartutakoek uste dutena behintzat.

Ikerketa honetan jasotako datuak esparru desberdinetako subjektuengandik jasotakoak dira baina haien gehiengoak hezkuntza arloan lan egiten du. Honek, Haur Hizkerak Iruñerriko eskoletan erabiltzen duten edo ez ikusteko balioko digu.


Hasteko, parte hartzaileen izaeraren arabera aztertzen badugu Haur Hizkeraren erabilera, sexuaren arabera inkestatutako emakumeen %89-k erabiltzen du Haur Hizkera eta gizonezkoen %67-k. Honek erakusten digu emakumeak direla Haur Hizkera gehien erabiltzen dutenak, gure hipotesiak baieztatzen zuen moduan. Hona hemen grafiko baten bidez irudikatutako emaitzak:



1. Grafikoa. Erabilera sexuaren arabera

Bestalde, adin taldea kontuan hartuz gero, 36-60 urte artekoak dira portzentaje altuena erakusten dutenak, nahiz eta 60 urtetik gorakoek Haur Hizkera erabiltzen duen pertsona bat gutxiago bakarrik izan. Gutxien erabiltzen dutenak 18-35 urte arteko gazteak lirateke. Konparaketa honetarako 18 urtez beherakoak kanpoan utzi ditugu, izan ere, bakar batek erantzun digu inkesta eta ez zaigu datu esanguratsua iruditzen.

Arestian ikusi dugunez (cf. § 3.1.2), aitona-amonak izaten dira Haur Hizkera beranduen utzi eta gehien erabiltzen dutenak. Esan beharra dago, 36-60 urte artekoen taldean ezin dugula zehaztu 50 urtetik gorakoak dauden edo ez, baina egia da talde honetan dagoeneko aitona-amonak diren eta bilobak dituztenak ere aurki ditzakegula.



2. Grafikoa. Erabilera adinaren arabera

Aipatzekoa da badirela Haur Hizkera erabiltzen ez dutela esan digutenak ere. Aurretik ere (cf. § 3.1.2) esana geratu da Haur Hizkeraren erabileraren inguruan ikuspuntu desberdinak daudela. Batzuk gehiago, beste batzuk gutxiago, eta erabiltzen ez dutenak ere badaude. Hori ere islatu da gure inkestean emaitzetan. Haur Hizkeraren erabileraren inguruko galdera batean, erabiltzen dutela esan digutenean artean ere egoera desberdinak agertu dira. Batzuek gutxitan erabiltzen dutela esan dute, beste batzuek soilik egoera batzuetan eta badaude ez erabiltzen saiatzen direnak ere.

Jarraitzeko, euskal Haur Hizkeraren berezitasunak aztertu ditugunean (cf. §2.2) konturatu gara aipatutako hiru esparruetan aberatsa izan badela (fonetiko, morfosintaktiko eta lexikoan), eta hainbat ezaugarri daudela hizkera hori horren berezi egiteko. Gure inkestatuek ere ezaugarri horiek haiek haurrekin komunikatzen direnean erabiltzen dituztela konturatzen direla dirudi. Guk zenbait ezaugarri planteatu dizkiegu, hizkuntzaren maila desberdinekin lotuak, eta haiek erabiltzen dituztenak markatu dituzte. Hona hemen ezaugarrien zerrenda:

Haur Hizkeraren ezaugarriak eta erabilera: Orokorretik Iruñerriko eskoletara

- Zehatzago hitz egin
- Esandakoa errepikatu
- Esaldiak sinplifikatu
- Galderak egin
- pertsona erabili
- Hiztegi berezia erabili
- Tonua markatuago
- Erritmo motela
- Keinuekin lagundu
- Begietara begiratu
- Haurraren altuerara jaitsi
- Kontaktu fisikoa ezarri

Ikusten den bezala, zerrenda honetan haur hizkuntzaren ezaugarri berbalak zein ez berbalak ditugu. Azken hauen artean arestian aipatutakoak ditugu (cf. § 2.1) eta horietako batzuk Owens-ek (2003: 174-175) aipatzen zituenen artean daude. Ezaugarri ez-berbalak dira, hain zuzen ere, gure inkestatuek gehien aukeratu dituztenak. Emakume gehienek (denek bat izan ezik) haurrengana zuzentzen direnean keinuez baliatzen direla adierazi dute eta bai emakume baita gizon askok ere haurrak begietara begiratzen dituztela eta haurraren altuerara jaisten direla esan dute.

Alderdi berbalean, ordea, gizon zein emakumeek haurrei zehatzago hitz egiten dietela diote eta batez ere gizonen kasuan hiztegi berezia ere erabiltzen dutela. Alderdi lexikoa da, lehen esan dugun bezala (cf. §2.2) euskal Haur Hizkeran gehien ikertu izan den atala, eta ez dirudi kointzidentzia denik ezaugarri hau ateratzea erabilien artean. Izan ere, errez sumatzen den berezitasuna dugu hau. Berehala ohartzen gara normalean erabiltzen ez dugun hitza esaten diogula haur txikiari, *txitxi* edo *kaka* esate baterako.


Ezaugarri morfosintaktikoak, aldiz, sumatzeko zailagoak direla esan dezakegu. Ekar ditzagun gogora arestian aipatu ditugun (cf. §2.2.2) bost ezaugarri morfosintaktikoak:

- Hitz batzuk izen berezi bezala erabili eta deklinatzen dira.
- Absolutiboan bakarrik joateko joera duten hitzak.
- Zenbait elementu edo sintagma esaldiaren hasiera eta amaieran errepikatu.
- Aditz laguntzailearen ezabaketa.
- Hitzen kategoria gramatikala.

Esan bezala, aldaketa hauek egiten ditugula konturatzea ez da hain erraza eta horregatik izan daiteke inkestatuen artean arlo honekin lotutako ezaugarriak arrakastarik ez izatea, erabiliak ez izatea baino. Gainera, ezaugarri morfosintaktikoetako bat izan da galdeketa bete dutenen artean gutxien markatua

izan dena, 3. Pertsona erabiltzearena hain zuzen ere. Baliteke hori, aurrerago ikusiko dugun bezala, galdetutakoen gehiengoa irakasle izanarekin loturik egotea.

Ikus dezagun jarraian, ezaugarri guztiak biltzen dituen grafikoa. Argi ikusiko dugu bertan inkesta bete dutenek zein neurritan erabiltzen dituzten ezaugarriok:



3. Grafikoa. Ezaugarrien erabilera

Grafikoan ikusten den moduan, ezaugarri ez-berbalak dira jendeak gehien erabili eta antzematen dituenak: keinuak, begirada eta haurraren altuerara jaitea. Konkrétuki, keinuekin laguntze izan da ezaugarri guztietatik gehien nabarmendu dena, 18 pertsonak aipatu dute eta horrek %64 baino gehiago suposatzen du. Ezaugarri berbaletara joanda, eta haurraren altuerara jeistearrekin berdinduta, zehatzago hitz egitea daukagu. Hori izan da ezaugarri berbaletatik gehien aipatutakoa, izan ere, 20 pertsonak aipatu dute. Beste ezaugarriak nahiko berdintsu geratu dira, aipamen urriena izan duena ez ezik. Hori izan da hain zuzen ere hurrekin 3. pertsona erabiltzearena, 8 pertsonak besterik ez aipatu dutena (%29).

Haur Hizkerak propio dituen ezaugarriak nola erabiltzen dituzten ikusi dugu, baina noiz eta norekin erabiltzen dituzte? Galdera honi erantzuna emateko bi bide jarraituko ditugu. Alde batetik zein haur motarekin erabiltzen duten ikusiko dugu, eta bestetik zein adinetatik aurrera uzten dioten hizkera hau erabiltzeari.

Orokorrean, Haur Hizkera haur txikiekin bakarrik erabiltzen dutela esan digute, hau da, §3.1.1. atalean aipatzen genuen aro aurrelinguistikoan, eta gehientsuenek familiakoak edo hurbilekoak diren haurrekin. Pare bat emakumek bai txikiekin eta baita handixeagoekin ere erabiltzen dutela erantzun digute. Besteren batek haurraren adin eta ulermenaren arabera erabiltzen dutela dio.

Hizkera mota hau baztertzeko adinaren inguruan oso emaitza desberdinak izan ditugu. Batzuek niniekin bakarrik erabiltzen dutela dioten bitartean, beste batzuek haurrengana hizkera honetan 8 urteak arte zuzentzen direla diote. Hala ere, gehiengoak Haur Hizkera baztertzeko adina 4-7 urteak bitartean kokatzen du. Batzuek diote haurrak hitz egiten ikasi ahala Haur Hizkera hori aldatuz joaten direla, bukaeran guztiz baztertu arte.

Puntu honetara iritsita, irakasleek eskainitako datuei irekiko diegu tartea. Haur Hezkuntzan lan egiten duten inkestatutako irakasleen artean oso iritzi desberdinak daude. Gutxienekoak dira argi Haur Hizkera gelan erabiltzen dutela esaten digutenak. Gehienek hizkera honen zenbait ezaugarri bai baina Haur Hizkera propio erabiltzen ez dutela diote. Tartean hizkera mota hau gelan erabiltzen ez dutenak ditugu. Argi geratzen da beraz, gure hipotesietan azaldu bezala, irakasleek ohitura urriagoa dutela Haur Hizkera erabiltzeko.

Erabiltzen dutenen artean, hauek izan dira Haur Hizkeraren erabilera azaltzen den egoeretako batzuk:

- Gelatik kanpo, baina ahala ere eskola barnean gertatzen diren momentu berezietan, bazkal orduan esate baterako.
- Hurbiltasun afektiboa eta lasaitasuna eskatzen duten momentuak, hala nola haurrak mina hartu eta sendatzen dugunean.
- Aginduak eman eta ongi ulertu dutela ziurtatu nahi dugunean.
- Batez ere txikiekin, 3 urtekoekin esaterako, fantasiako munduen bitartez lanean ari direnean.

Haur Hizkera eskolan erabili beharko litzatekeen edo ez galdetuta, desberdintasunak aurkitzen ditugu emakume zein gizonen erantzunetan. Galdera erantzun duten gizonen gehiengoak Haur Hizkera eskolan hitz egitearekin ez daude ados, eta aldiz emakume

Haur Hizkeraren ezaugarriak eta erabilera: Orokorretik Iruñerriko eskoletara

gehienek Haur Hizkera eskolan ere erabili beharko litzatekeela diote. Erabiltzearen alde agertzen direnek hurbiltasuna, jarrera afektiboa eta haurrak ongi ulertzea aipatzen dituzte arrazoi nagusizat. Hau da, hitz egiten duenak haurrarekin eratu nahi duen harremana alegia. Erabiltzearen aurka daudenek ondorengo zergatiak ematen dituzte:

- Haurrek hizkuntza ongi eta zuzen ikasi behar dute.
- Helduak emandako hizkuntza ereduak egokia eta aberatsa izan behar du.
- Haurrek entzuten dutena ikasten dutenez eredu ona eman behar zaie.
- Umeak gai dira hizkuntza eredu aberatsa jasotzeko

Erantzun hauen baitan gorago aipatutako teorien isla ikusi dezakegu (cf. §1.1). Batez ere argi ikusten dugu inkestan parte hartu dutenen artean badaudela konduktismoari keinu bat egiten diotenak. Batez ere hirugarren arrazoiak argi esaten du haurrak imitazioaren bitartez ikasten duela, helduak eredu dituelarik. Horregatik ere besteren batek eredu ona edo zuzena eskaini behar zaiola dio.

Atal hau bukatzeko, Iruñerriko erabileraren inguruan duten iritzia ezagutuko dugu. Gehiengoak euskalkietan Haur Hizkera Iruñerrian baino gehiago erabiltzen dela esaten digu eta gainera, aipatzekoa da erantzun hau eman dutenen erdia baino gehiagok euskalkiren bat erabiltzen dutela.

ONDORIOAK ETA PROPOSAMENAK

Lan honen bukaerara iristear gaudela aztertutako informazio guztiak dakarzkigun ondorioei buruzko hausnarketa egiteko momentua da. Alde batetik, irakurri eta ikusitako dokumentazioak gaiari buruzko ikuspuntu desberdinak ulertzeko balio izan digu eta bestetik, Iruñerriko pertsona desberdinei egindako inkestak gure zonaldean bizi den egoerari buruz hausnartzeko aukera eman digu.

Lehenik eta behin, lan honek hasieran planteatutako hipotesiak baieztatu edo ukatzeko aukera eman digu. Aipatzekoa da gure lehenengo hipotesia erdi-baztertuta geratu zaigula, izan ere, pertsona helduen muga 60 urtetan jarri genuen eta beharbada urte batzuk beherago kokatu izan bagenu emaitza desberdinak jaso izanen genituzke. Hala ere, azpimarragarria iruditzen zaigu irakasleen inguruko planteamendua, zeinez aurrerako mintzatuko garen.

Bestalde, konturatu gara mundu mailan Haur Hizkeraren inguruko ikerketa sakonak aurki ditzakegula, informazio ugari dagoela herrialde desberdinei buruzko eta batez ere Ingelerazko *Baby-Talk* edo *Child Directed Speech*-ari buruzkoak. Baina Euskal Herri mailan dokumentazioa falta dela iruditzen zaigu, eta Zubirik (1995; 2002) eskaintzen dizkigun lanez gain, ezer gutxi aurki dezakegu. Etorkizunera begira, interesgarria den gaia dela iruditzen zaigu Haur Hizkerarena eta batez ere aipatu izan ditugun ezaugarri horiek mantentzen diren edo aldatuz joan diren ikertzea baiogarria litzateke gaur egungo egoeran zein leku duen ikusteko.

Aipatutako honekin batera, esan beharra dago euskal Haur Hizkerak ezaugarri bereziak eta aberatsak dituela eta hau arrazoi gehigarri bat iruditzen zaigu honen inguruko ikerketa sakona egiteko. Gainera, euskara eskolan bakarrik ikasten den zonaldeetan esaterako, euskarazko Haur Hizkerak desagertzeko arriskua izanen luke. Kontuan hartzekoa da Haur Hizkerak hizkuntzaren jabeakuntzan ere lagundu dezakeela.

Honekin lotuta, Haur Hizkerak eskolan behar luken eremua dugu. Tradizionalki hizkera hau etxe-giroan bakarrik erabili izan da haur txikiekin. Baina azken mendetako gizartearen aldaketek haurrak eskolara lehenago eramatea ekarri du eta gaur egun oraindik ere horren landua ez dugun 0-6 urte bitarteko Haur Hezkuntza sortu da. Horren adin txikiko haurrak eskolan izanda, bertan Haur Hizkeraren erabilera Haur Hizkeraren ezaugarriak eta erabilera: Orokorretik Iruñerriko eskoletara

planteatzekoa da. Batez ere hurbiltasuna, goxotasuna, afektibotasuna, e.a. hainbeste eskatzen duten 0-2 bitarteko haurrekin.

Gure hipotesiak, aitzitik, irakasleek Haur Hizkera erabiltzeko ohitura urriagoa dutela zioen. Hori, gure irakasleak Haur Hezkuntzako bigarren ziklokoak direlako planteatu dugu horrela. Izan ere, haietako baten batek esan digun moduan, haur txikiekin (3 urtekoekin) batez ere erabiltzen du hizkera hau.

Aipatzekoa da bestalde, hezkuntza arloko dokumentu ofizialetan ez dugula inondik aurkitu Haur Hizkerari buruzko aipamenik. Beharrezkoa iruditzen zaigu beraz, Haur Hezkuntzako lehenengo zikloko *Curriculum*-ean behinik behin, hizkera honi arreta eskaintzea. Izan ere, askotan irakasleek ez dute Haur Hizkeraren inguruan hausnarketarik egin eta gainera ez da ofizialki ikasi edo lantzen den gai bat.

Dena den, eta orokorrean hitz egiten oraingoan, erabileraren inguruan ikusi dugu Haur Hizkerak eremu jakina eta zehatza duela, Zubirik (1997:200) ere esaten zigun moduan: haurtzaroa da hori. Ez hori bakarrik, erabilera hori helduen esku dagoela ere ikusi dugu eta komunitateak eta kulturak baldintzatuta gainera.

ERREFERENTZIAK

Aurkerena, J., Covadonga, G. eta Zelaia, J., 1999. *Haur hizkera*. GERO, Euskal liburuak. Bilbo.

Azkue, R. 1891. *Euskal-izkindea*. Bilbo. 24-25.

Elizagoien, J. (2013). "Haur Hizkera etxetik eskolara: Ezaugarriak, erabilera eta Baztango kasua". NUP-eko Gradu Bukaerako Lan argitaragabea. [Sarean: <http://academica-e.unavarra.es/> -en kontsultatua: 2014-04-30].

Fernald, A., Taeschener, T., Dum, J., Papousek, M. eta Fukui, I. (1989). *A cross-language study of prosodic modifications in mothers' and fathers' speech to preverbal infants*. Department of Linguistics. University of Manchester. 477- 501.

Gavrilova, T. (2012). "Who speaks baby talk? Not me!". In Frog & Karina Koski (arg.), *Register, intersections of language, context and communication*. 32. Helsinki: Folklore Studies, University of Helsinki.

Lekuona, M. (1921). "Lenguaje infantil". *Anuario de Eusko Folklore*. 31-37, 1.

Ochs, E.; Schieffelin, B. (1995). *The Impact of Language Socialization on grammatical development*. Oxford: Blackwell.

Ochs, E.; Schieffelin B. (1984). "Language acquisition and socialization: Three developmental stories". *Culture Theory* Eds. R. Shweder and R. LeVine. 276–320.

Owens, R.E. (2003). "Procesos en la adquisición del lenguaje". In *Desarrollo del lenguaje*. Madrid: Pearson. 173-180.

Pinker, S. (1994). *The language instinct*. New York: William Morrow and Company.

Rondal, J.A., 1990. *La interacción adulto-niño y la construcción del lenguaje*. México: Trillas.

Serra, M., Serrat, E., Solé, R., Bel, A., Aparici, M. (2000). *La adquisición del lenguaje*. Barcelona: Ariel.

Zubiri, J.J. (1995). "Euskarazko haur hizkuntzaren berezitasunak". In *Huarte de San Juan*. 177-203, 1.

Aintzane Mangado Etulain

Zubiri, J.J. (2002). "Haur hizkeraren erabileraz". In *Hizpide*. 16-30, 49.

ERANSKINAK

A. Inkesta eredia

Aintzane Mangado Etulain
NUP-eko ikaslea

HAUR HIZKERAREN INGURUKO INKESTA

Gratu Bukaerako Lana ekoizten ari naizela, perfil desberdinetako pertsonengandik landutako gaiaren inguruko informazio eta ikuspuntu desberdinak jasotzea da inkesta honen helburua. Haur Hizkeraren ezaugarri eta erabilpena aztertzen ari naiz, hau da, helduek haurrengana zuzentzen direnean erabili ohi duten hizkuntz estilo berezia.

Horretarako, tarte txiki bat hartuta, galdera sorta hau erantzutea eskertuko nizuke.

Aldez aurretik, mila esker.

1. Markatu zure adin taldea eta sexua:

- | | |
|--|-----------------------------------|
| <input type="checkbox"/> 18tik beherakoa | <input type="checkbox"/> Emakumea |
| <input type="checkbox"/> 18-35 | <input type="checkbox"/> Gizona |
| <input type="checkbox"/> 36-60 | |
| <input type="checkbox"/> 60tik gora | |

2. Hezkuntza arloan lan egiten al duzu? Zertan? Zein eskola motatan?

3. Kontziente al zara hurrei desberdin hitz egiten diezula?

4. Markatu ezaugarri hauetatik zeintzuk antzematen dituzun haurrengana zuzentzerakoan:

- | | |
|--|---|
| <input type="checkbox"/> Zehatzago hitz egin | <input type="checkbox"/> Erritmo motela |
| <input type="checkbox"/> Esandakoa errepikatu | <input type="checkbox"/> Keinuekin lagundu |
| <input type="checkbox"/> Esaldiak sinplifikatu | <input type="checkbox"/> Begietara begiratu |
| <input type="checkbox"/> Galderak egin | <input type="checkbox"/> Haurraren altuerara jaitsi |
| <input type="checkbox"/> 3. pertsona erabili | <input type="checkbox"/> Kontaktu fisikoa ezarri |
| <input type="checkbox"/> Hiztegi berezia erabili | <input type="checkbox"/> Beste batzuk: |
| <input type="checkbox"/> Tonua markatuagoa | |

8. Irakaskuntza arloan lan egiten baduzu, gelako hurrei zuzentzerakoan Haur Hizkera erabiltzen al duzu? Erantzuna baiezkoa bada, zein egoeratan gertatzen da hori?

9. Egokia iruditzen al zaizu eskolan Haur Hizkera erabiltzea? Zergatik?

10. Haur Hizkera herrietan eta beste euskalkietan Iruñerrian baino gehiago erabiltzen dela uste al duzu? Euskalkirik erabiltzen al duzu?

Eskerrik asko galdeketa honetan parte hartzeagatik,

Aintzane Mangado Etulain

Aintzane Mangado Etulain

B. Inkesten emaitzen taula